

noaia

**Eskola Kirola eta dantza
taldeen jardura baimendu dute**

**Igandean Sutegin, 'Lanbroa'
film laburra ikusgai**

**Garbitaniak gidarien lan-poltsa
handitzeko deialdia egin du**



**Bidegile ilara luzea,
presoak etxeratzearen alde**

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea
urtarrilaren 27tik otsailaren 4ra
(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu)

• **HEZKUNTZA OROKORRA** (Oinarrizko kultur formakuntza: Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, idazketa. Kalkulazio hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionaturako mugimendu artistikoak...)

• **DBH-ko titulua** (4 hilabeteko ikastaroak)

• **IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHAR**

• **IKASTURTE AMAIERAKO BIDAIA ATZERRIRA**



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08 info@epalasarate.eus

BAZKIDEEN TXOKOA

noaua euskararen aterpe



2 saski zozketatuko ditugu
urtarrilaren 29an

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

ARATZ

zabaleta anaiak



32 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten
· eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak


Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

Albisteak iruditan

Joxan Artzeren ondarea hobeto ezagutzeko aukera

Asteartean bete ziren hiru urte, Joxan Artze zendu zenetik. Sortzaile usurbildarra omentzeko aukera dugu egunotan Sutegin. Bate-tik, berari idazteko Sutegi udal liburutegian duten erregistro liburua erabil dezakegu. Liburutegiak berak gainera ondoko irudiko erakusketa osatu du. Kultur etxeko erakusleihora hurbilduta ikus dezakezue, Artzeren lanen bilduma; tartean, "Txalaparta. Tradizioaren abaroan" zendu zenean garatzen ari zen eta udazken honetan Elkarrek plazaratu duen argitalpena.



Sutegiko erakusleihora hurbilduta ikus dezakezue Artzeren lanen bilduma.

Laburrean

Usurbil eremu horira itxuli da

0,0ko intzidentziarekin hasi genuen urtea. Urtarrileko lehen astean 9 Covid-19 kasu detektatu ondoren, 47,56tik 142,68raino igo da 100.000 biztanleko 14 eguneko intzidentzia metatua Usurbilen.

N634 errepideko erre bat itxita

Eguberrietan guztiz zabalik izan zen N634 errepidea, Troia aldamenean. Erre bat itxita izango da berriz beste bi hilabetez, lanei berrekin dietelako. Behin behineko semaforoek kudeatuko dute ibilgailuen joan etorria.

Ohiko ordutegien itzulera

Asteotako jai egunetan itxita izan dira hainbat udal zerbitzu, edota ordutegiak egokitu dituzte. Ohiko jardunera itzuliak dira, Sutegi udal liburutegia izan ezik. Larunbatetik aurrera bai, ohi bezala, astelehenetik larunbatera irekiko dute.

noaqua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaqua.eus ||| www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte,
Itxaso Orbegozo.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Luis Aranalde

Urteberri on, irakurle. 2020ko balantzea egin eta 2021erako proiektu berriak finkatzeko garaia dugu urte berriaren hasiera hau.

Balantze aldetik, askoren ustez “annus horribilis” izan da 2020a. Ez dela parte onekoa izan, alegia. “Urte gaizto petrala” bezala definitzen du Bizargorri kazetariak. Eta jarraitzen du: “penak eta saminak landu beharrik ez omen da izaten, berak ohi datozelako berez. Biziko garen bitarte guztian ez dugu ahaztuko ‘errosario santu’ hau: pandemia, konfinamendua, musukoak, ospitaleak eta abarrak”. Erabateko protagonista birusa izan dugu. Beste gauza garrantzitsu asko gertatu arren, mundua bere esanetara dantzan jarri du. Gezurra dirudi nano xomorro batek 7 mila milioi pertsona airean jartzea. Balentria harriarrienak eta zitalkeria deitoragarrienak azaleratu ditu lehen esan nizuen bezala arkakuso kaka baino milioi bat aldiz txikiagoa den mikrobio horrek. Gogorarazi digu baita gutako edonor bilaka daitekeela heroi eta baita egoista txatxu bat ere. Promesa askoz beteta zetorren 2020a eta amets gaizto bihurtu zaigu.

Lorpen bikainak ere ekarri dizkigu urte xeble honek. Eta besteak beste, txertoare-

Pintxazo bedeinkatua



“Beti bezala, arrisku handia dago pobreenak gabe geldituko ote diren txerto burrunba horretan”.

LUIS ARANALDE

“Zitada honekin hasi gara tunel luze baten amaieran argia ikusten”

na. Batzuei errezeloa eta erre-fusa piztu die, baina gehienei harridura, lilura eta itxaropena. Miraria dirudi hain denbora gutxian (urte bete eskas) garatu izanak. Aurrekaririk gabeko lorpena izan da: lehen dozenaka urte behar izaten zituzten zenbait txerto aurkitzeko. Ia berrogei urte dira HIESaren txertoa garatzen hasi zirela, baina ez dute arrakastarik izan. Oraingoan, birusaren beraren ezaugarriek, teknologia farmazeutikoen aurrerapeneak, elkarlanak eta ahalegin globalak aukera eman dute txerto seguru bat baino gehiago garatzeko 11 hilabetetan. Ikuspegi zientifikotik, lorpen ikaragarria da.

Proiektu berriei dagokienaz konturatu naiz zenbait kazetari horoskopoei begira jartzen diela informazioa eskatuz urte berrirako erabakiak hartu aurretik. Inoiz ez naiz izan zodiakoaren orakulu zale. Batek dioenez, 2020ko urtarrilaren 25ean, metalezko arratoiaren urteari ekin zioten Txinan, itxura batean animalia horri atxikitako zortea eta oparotasunaren zain. Horoskopoen iragarpena hutsala gertatu da; metal hori herdoildua zegoen nonbait.

2021. urtea metalezko idia-rena da Txinan. Kazetari baten esanetan aurtengo metal hau preziatua izango omen da, herdoiltzen ez den altzairuz egina: txertoaren orratz hipodermikoz.

Zitada honekin hasi gara tunel luze baten amaieran argia ikusten eta gero eta distiratsua-goa gainera. Horretarako, alde batetik guztizko konfiantza

jarri behar dugu zientzian. Nik behintzat uste osoa dut zientifikoengan. Are gehiago esaten baldin badigute txertoaren eraginkortasuna %95a dela gutxienez. Bestetik, txerto hori modu justuan banatu behar da. Beti bezala, arrisku handia dago pobreenak gabe geldituko ote diren txerto burrunba horretan. MOEko zuzendariak peril horretaz hitz egin zuen duela gutxi. Errege magoei idatzitako gutun batek ere kezka hau agertzen zuen: “Jaun agurgarriok, aurtengorako ekariezazkiguzue xumeekiko solidaritate kaxa handi batzuk, batez ere behartsuenentzat: erresiden-tzietako agureentzat, bakar-dadean bizi direnentzat, gaixo eta etorkinentzat eta sendagileentzat eta erizain-entzat indarra eta kuraia”.

Gurutz Linazasoro neurologo ospetsuari irakurtzen nion lehengo batean; “esperantza indizio bat da txertoa, eguberrietako erregaliarik preziatua. Medikuntza aldetik gainera, bere eraginkortasuna eta seguritatea ez daude zalantzan jartzetik. Izan dezakeen arriskua baino onura askoz handiagoa da”. Eta Yuval Harari idazle israeldarrak honela dio: “geuk erabaki behar dugu nolako mundua nahi dugun pandemia ostean”. Zitada berri on opa dizuet.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapiain

Luis Aranalde

Otar-Goxo
Elkaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil



Kima
MASAJE LEKUA



·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



ADA
-MASAJEAK-

633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

Garbitaniak hondakinen bilketarako gidarien lan-poltsa handituko du

Hondakinen bilketarako gidarien lan-poltsa handiagotzeko hautaketa prozesua abiarazi du Garbitaniak. “Hautaketa prozesua gainditzen duten izangaiek egun indarrean dagoen lan poltsa handiagotuko dute, lortutako puntuen arabera. Lan poltsa hori erabili ahal izango da Garbitaniak izan litzakeen aldi baterako lan premiak betetzeko, unean uneko lanpostu hutsak betetzeko, aldi baterako programak egiteko, eginkizunen pilaketagatik, behin-behineko beharrak betetzeko eta hala badagokio, lan postuak horrela eskatuko balu, behin-betiko kontratazioak egitea posible izango da”, berri eman dute Garbitaniatik.

Deialdi honetara eskabideak aurkezteko epea zabalik dago, urtarrilaren 25era arte.

Lan baldintzak

■ Lanaldia: Garbitaniak zehazturikoa.
■ Urteko ordainkizun oinarria: 27.567,62 euro.

Eginkizunak

Besteak beste: kamioia gidatu eta hondakinen bilketa atez



Deialdi honetara aurkezteko epea urtarrilaren 25era arte dago zabalik. Argazkia: Garbitania.

GARBITANIA

“Hautaketa prozesua gainditzen dutenek lan poltsa handiagotuko dute”

atekoa duten udalerrietan, kamioiaren mantentze lana, ontzi eta posteen garbiketa...

Bete beharreko baldintzak

- 16 urte beteak izatea.
- Eskola-ziurtagiria edo parekoa izatea.
- Lanpostuko eginkizunak betetzeko gaixotasun edo mugarik ez izatea.
- 1. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara maila, derrigorrezkoa.

■ C gidabaimena edo baliokide baten jabe izatea.

Eskabideak

- Garbitania Zero Zabor SMren bulegoetan (Lastaola Poligonoa 3, A-12 eraikina, Ereñotzu auzoa Hernani, 20120), 9:00-14:00 artean edo posta bidez aipatu helbidera helarazita.
- Epea: urtarrilak 25.

Hautaketa prozedura

Bi faseetan: oposizio aldia (60 puntu) eta lehiaketa aldia (40 puntu). Deialdien hitzorduak garbitania.eus orrialdean argitaratuko dituzte. Informazio gehiago: garbitania.eus

2021eko jai egunetan aldaketa nabarmenik ez

Iragan maiatzean finkatu ziren hasi berri dugun urte berri honetan izango ditugun jai egunak; iazkoekin alderatuta ez dago aldaketa nabarmenik. Usurbili dago-kionez, udalerri mailako jai egunak uztailaren 2a izaten segiko du.

Datozkigun jai egunak ere erlijio ospakizunei edota espainiar estatuko egun seinalatuei lotutakoak izango ditugu:

- Martxoak 19: San Jose.
- Apirilak 1: Ostegun Santua.
- Apirilak 2: Ostiral Santua.
- Apirilak 5: Pazko astelehena.
- Maiatzak 1: Lanaren jaieguna.
- Uztailak 2: Usurbilgo jai eguna.
- Uztailak 31: San Inazio eguna.
- Urriak 12: Espainiako jai nazionala.
- Azaroak 1: Domu Santu eguna.
- Abenduak 6: Konstituzio eguna.
- Abenduak 8: Sortzez Garbiaren eguna.
- Abenduak 25: eguberri eguna.

Ika-mika

Kirola eta jolasa bueltan dira

Egoera gogorra da bizitzaren ari garena zalantzarik gabe. Elkar zaintzea eta arduratsua izatea egokitzen zaigu garai honetan, baina era berean, norberaren burua zaintzea ere ezinbestekoa da.

Ume eta gazte askori, kirola zein jarduera fisikoa eginez beraien burua eta gorputza osasuntsu mantentzeko eskubidea ukatu zaie azken aste luzeetan. Hainbat eta hainbat hezitzaile ere, ahaztuak utzi dituzte, beraien lanpostuak kolokan. Lehen momentutik, errudunak

bailiran tratatuak izan dira, non eta kirolaren praktikaren harira eman diren positiboen kasuak, oso txikiak izan direnean.

Lehen egunetik, baldintza zorrotzetan aritu behar izan dugu herriko kirol eta kultur taldeok gure jardunak aurrera eramateko. Usurbilgo Udalarekin batera, elkarlanean aritu gara eta dekretuak dekretu, moldaketak moldaketa, eskatutakoari eutsi eta modu seguru batean burutu genituen gure ekintzak. Bai eskola kiroleko jarduerak zein kirol federatukoak ere.

Neguko txokoetan ere, argi eta garbi ikusi dugu, umeek beharra dutela lagunekin jolasean aritzeko eta beste behin, jarduerak hauek modu seguru eta arduratsu batean burutu ditzakegula erakutsi dugure herriak.

Gaurkoa egun pozgarria da guretzat. Gustatuko litzaikekeen moduan ez bada ere, gure jarduerak berrakibatze moduan gaude eta guztiontzat onuragarria izango dela argi daukagu. Aurrekoetan egin dugun bezala, araudiek diotenaren arabera antolatuta eta laster

izango gaituzue lanerako prest. Bertan elkar ikusiko garela espero dugu eta orain arte bezala, ziur gaude zuen laguntza eta prestutasuna izango ditugula, funtzionamendu arau zein protokolo guztiak betetzeko. Elkar zaintzeko lehian, kirola eta jolasa txapeldun!

Zirimara, Udarregi, Orbeldi, Buruntzazpi, Usurbil KE, Usurbilgo Judo Kluba, Usurbil FT, Pagazpe, Zubietako Pilota Elkartea, Tximeleta, Orioko Atletismo taldea, NOAUA, Udala.

Geldialdirik egin gabe igaro ziren erregeak

Bidelagunik eta geldialdirik gabe, eta oraingoan etxeetan zeudenak agurtuz zeharkatu zuten Usurbil Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeek urtarilaren 5ean. Aurtan ezinbestean, Covid-19ak baldintzaturiko kabalgata egin behar izan zuten. Covid-19ak eragotzi zien urteroko bira bidelagunez inguratua egitea, gozoki zaparrada jaurtitzea, frontoian harrera jendetsua jasotzea eta haur zein helduak haiengana gerturatzea.

Pandemia beteko errege kabalgata geldialdirik gabekoa izan da, publiko gutxikoa kalean, etxeetako balkoi eta leihoetan bildutakoei agur egin zeharkatu zuten udalerria, musukoekin jantzita etorri ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeek. Ezohiko abiapuntu eta helmuga izan zuen kabalgatak; Udarregi Ikastola paretik abiatu eta herri erdiguneari bira eman ostean, Santuenea eta Urdaigarantz jo zuten gero.



Maskarekin jantzita iritsi ziren Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak.

ERREGEEN MEZUA

**Kabalgata amaituta,
erregeen mezua**

**Internetez zabaldu zen
noaia.eus web orrialdean**

Garai zailetan, alternatiba irudimentsuak; antolatzaileek

kotxeetan musikaz girotu zieten bidea hiru erregeei.

Mezua, online

Kabalgata amaituta, beste urteetan erregeek plazaratu izan duten mezua online bidez zabaldu behar izan zuten. Etxeetan uztear zituzten opariak hur-

bilekoekin partekatzeko gonbita luzatu zuten erregeek, urte berri zorionsua opa izan eta datorren urterako “elkarrekin egongo garela” desioa adieraztearekin batera, Ziortzak herritar talde batekin eta Udalaren babespean grabatu eta Urdaigian giroturiko ikus-entzunezkoan.

Bi antzerki labur oporretatik bueltan



“Mundu berri bat” eta “Maita(k)ale” antzerki laburrak eskaini zituzten Sutegin ostiralean.

“Mundu berri bat” eta “Maita(k)ale” antzerki laburrak eskaini zituzten Sutegin ostiralean, udalak eta Hitz Aho guraso elkarteak antolatuta.

Lehenengo “Mundu berri bat” antzeztu zuten, autobusaren geltokian topo egin

duten bi pertsonen istorioa. Autobusa hartu edo ez hartu, hortxe kokka. Sufrimenduz beteriko bizitza atzean utzi eta alde egin, edo bertara itzuli eta aurrera egin. Galdera horri aurre egin behar izan zion protagonista batega.



“Maita(k)ale” antzezlanaren kasuan, Meetic kontaktutako webgunean ezagututako bi gazteren istorioa, %85eko bateragarritasuna bai, baina gainontzeko %15aren baitan zegoen bikotearen etorkizuna. Lehen zita izan zuten, baina

ez zen nahi izan duten beazala joan. Manifestazio batean egin zuten topo, eta hor topatu zuten urrutzen zituen %15a. Zer zen garrantzitsua goa, elkartzen zituen %85a edo erabat urrutzen zituen %15a?

Santuenean ere ospatu zituzten gabonak



Asier Otegik ekarritako Olentzeroren postontzia lokalaren sarreran jarri zen eta auzoko haur askori gutunak euskaraz idazten lagundu zieten.

Urtero legez, Gabonak ospatu zituzten Santuenean. Hori bai, inoiz baino neurri zorrotzagoak hartuta. Habien tailerrak eman zien hasiera ospakizunei, giro atseginean elkartu ziren adin guztietakoak frontoian. Bautista auzotarrak gidatu zuen tailerra egun hartan. Eguberriak gainean zirela argiztatu zituzten geroago habi horiek.

Gutunak Olentzerori

Opor usaina zabaltzen hasi berritan, abenduaren 18an

HABIAK

“Habien tailerrak eman zien hasiera ospakizunei, giro atseginean elkartu ziren frontoian”

plaza ondoan kokatutako zuhaitza argiztatu zuten, eta Olentzeroren postontzia ikustarazi zuten haurrak gutunak idaztera animatzeko. Hurrengo egunean jarri zuten Olentzero bere ohiko lekuan, parke ondoko zelaian. San Tomas egunez postontzia auzoko lokalaren aurrean koka-

tu zuten, bai eta abenduaren 24an ere, Olentzero etorri birtartean haurrek eskutitzak sar zitzaten. Asier Otegik ekarritako Olentzeroren postontzia lokalaren sarreran jarri zen eta auzoko haur askori gutunak euskaraz idazten lagundu zieten. Gozokiak oparitu zituen Olentzerok eta abenduaren 24an auzotik ere pasatu zen kamioian.

Txistorra San Tomas egunean

San Tomas Eguna ere ospatu zuten auzotarrek, baina ez urtero moduan. Auzo Elkarteko

kideek prestatu zuten txistorra eta kalera atera ziren jubilatuei eta bertan zebiltzatenei eskainiz. Jende pilaketak ekiditea zen helburua, eta hala egitea lortu zuten gisa horretara. Txistorra egosten bi lagun aritu ziren segurtasun neurri oro kontuan hartuta. Goizean eta arratsaldean lanean aritu ziren denentzat txistor muturra egon zedin. Gabonetako otarraren zozketa ere egin zuten.

Eguberria alaitasun garaitzat hartzen da, eta urteroko giro ona ez zapuzteko, musikarekin girotu zituzten arratsaldeak.



EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ERAMATEKO!!!



·EGUNEKO MENUA
·KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
BASERRIA · JATETXEA



www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Eskola Kirola eta dantza taldeen jarduera baimendu dute

Covid-19ari aurre egiteko neurri multzo berria indarrean du Eusko Jaurlaritzak urtarilaren 13az geroztik. “Prebentzio neurriak egungo egoerara egokitzeko erabakia hartu dugu, pandemiaren goranzko joeraren aurrean”, adierazi zuen aste hasieran osasun sailburu Gozone Sagarduik.

“Ez gaude ondo, egoera kezkarria da”, gaineratu zuen. Egun EAE-k duen 305,40ko intzidentzia 60raino murriztea da Jaurlaritzak bete nahi duen erronka. Mugikortasuna mugatu eta norberak bere “burbuila” identifikatua izatea eskatu zuen. “Hilabete zailak datoz eta birus honi aurre egiten jarraitu beharko dugu”, adierazi du Sagarduik.

Neurri berriak, 500etik beherako intzidentziagatik

Horretarako eskueran dauden baliabideak gogorarazi zituen; covid19 kasuak detektatu eta horien jarraipena egitea bate-tik; bestetik, “astez aste areagotzen joan” eta “denbora eta



Orbeldi Dantza Taldeak entseguak egin ahal izango ditu orain.

GOTZONE SAGARDUI

“Hilabete zailak datoz eta birus honi aurre egiten jarraitu beharko dugu”

prozedura zorrotzak behar dituen txertaketa prozesua”; eta azkenik, LABI-k aholkatu eta jada indarrean den prebentzio neurrien sorta.

Orohar aurreko asteotako neurriei eustea erabaki du Jaurlaritzak, baina badira zenbait aldaketa nabarmen. Hilabeteotan bezala, marra gorria 100.000 biztanleko 500eko intzidentzia metatuan jartzen segitzen dute. Intzidentzia tasa

handiagoa duten udalerrieta-rako neurri batzuk jarri dira indarrean, hortik behera diren-tan (tartean Usurbilen) beste batzuk.

Osasun Sailak astelehenean kaleratu zuen txosten epidemiologikoaren arabera, 100.000 biztanleko 142,68ko intzidentzia tasa du Usurbilek, 500etik beherakoa honenbestez. Eta horrek neurri batzuk malgutzea ekarri du; udalerri honetan bereziki Eskola Kirolari edota Orbeldi Dantza Taldearen jardunari eragingo diotenak. Taldeok urrian bertan behera utzi behar izan duten dinamikari berrekin ahalko diote eta.

Covid-19ari aurre egiteko neurri multzo berria

■ Noiztik indarrean: urtarilak 13.

■ Noiz arte: hasiera batean 20 egunerako. Egoera epidemiologikoaren bilakaeraren arabera, epe hau mantendu, luzatu edo laburtu dezakete.

EAE osoko udalerrietan mantenduko diren neurriak

- EAE-ren itxiera perimetrala.
- Gehienez 6 lagunekoko bilkurak.
- Etxeratze-agindua 22:00-06:00 artean.
- Gurtzeko guneetako edukiera gehienez %35ekoa izatea.
- Musika emanaldiak eta entseguak bertan behera uztea.
- Tabernen itxiera ordutegia:

20:00-06:00 artean.

■ Merkataritzaren eta kultur jardueren amaiera ordua: 21:00.

EAE osorako neurri berriak

- Norberak bizilekua duen lurralde historikoko pertsonen sarrera eta irteera murrizketa. Usurbildarrei Gipuzkoatik sartu eta irteteko mugikortasuna mugatuko zaie.
- 150 metro karratutik gorako merkataritza establezimenduetan %40ra murriztuko da edukiera, %60ra 150 metro karratutik beherakoetan.

100.000 biztanleko 500 kasutik beherako intzidentzia tasa

duten udalerrietan (tartean Usurbilen):

- Eskola Kirola baimendua, soilik entrenamendu saioetarako. Entrenamendu hauetan gehienez 6 pertsonako taldeak osatu ahalko dira, taldeon osaera ezingo da aldatu eta aldagelak ezingo dira erabili.
- Profesionalak ez diren dantza taldeen entseguak baimendu dituzte. Antzerkigintzak dituen antzeko baldintzak ezarriko zaizkie dantza taldeei.
- Jokoaren eta apustu sektoreko lokalen irekiera baimendu dute, ostalaritza sektoreari aplikatzen zaizkion antzeko baldintzetan.

GuraSOSek salaketa aurkeztu du Fiskaltzan

Erraustegian antzemandako uestezko irregulartasunak argitzeko salaketa jarri zuen urte amaieran GuraSOSek fiskaltzan. Erraustegiaren jarduna etetea eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailari eta Nortegasi eta Red Electrica Española-ri erraustegiaren jardura ahalbidetzekari uko egitea. Agiriak faltsutzea, prebrikazioz jokatzeko, baimenak ematea arauen aurka egin arren, jarritako baldintzak bete gabe errausten ari direla hondakinak langileen osasuna arriskuan jarrita edota ofizialki erraustegia martxan jartzea abenduaren 11n beharrezko baimenik gabe egotzen die GuraSOSek Zubieta gaineko azpiegituren sustatzaileei.

Homologatu gabe martxan

GuraSOSek dio ez zituela erraustegiak guztiz martxan egoteko baldintzak betetzen. Erraustegiaren gasaren azpiegiturak homologatu gabe segitzen du, Nortegas enpresarekin hartuemanetan jarri ostean. Ondorioz, gezurtatu egin ditu erraustegia guztiz martxan jartzeko abenduaren 11ko agerraldian Ahalduen Nagusi Markel Olanok eginiko adierazpenak.

GuraSOSen esanetan, azpiegiturak ez dutela amaitu probaldi fasea, homologatu gabe daudela, eta hala hasi dela erraustegia “ofizialki” lanean. Ingurumen baimena argindarra sortzeko azpiegiturak eraikitzen amaitu aurretik eta segurtasun baldintzak betetzen direla bermatu aurretik eman zaio, araudia errespetatu gabe GuraSOSen arabera. Eta iraungita dago, aurreikusia zegoen probaldi faseko denbora tartea gainditu baitu erraustegiak.

Bidegile ilara luzea, presoak etxeratzearen alde

Herritarren babes zabala izan zuen Sarek deituta “etxerako, elkarbizitzarako, bakerako bidea gara” aldarrirpean, urtarilaren 9an Usurbilen egin zen manifestazioak. Bidegile ilara luze batek euskal presoek etxeratzea eskatu zuen. “Gaur beste pauso bat eman dugu marraztutako bide horretan. Gaur milaka lagun batu gara herriz herri, bizipen anitzeko pertsonak, pentsamendu ezberdinekoak, minak eta esperantzak barnebiltzen ditugunak. Baina guztiak ere gogo eta nahi beraren baitan elkartu gara; bidean aurrera egitea, etxerako, elkarbizitzarako eta bakerako bidean aurrera egiteko. Milesker eta zorionak!”, adierazi zuten antolatzaileek.

Sareren adierazpena

Oinarrizko sei eskaera plazaratu zituzten, mobilizazio amaieran egin zuten ekitaldian: euskal presoek euskal herriratzea; larriki gaixo direnen etxeratzea; adinez nagusiak direnak ere etxeratzea; “motxiladun haurrei” gurasoekin bizitze-



“Gaur milaka lagun batu gara elkarbizitzarako eta bakerako bidean aurrera egiteko”, azaldu zuten antolatzaileek.

TESTUINGURU BERRIA

47 urteren ondoren, lehen aldiz, errepresaliatu politikorik gabe agurtu zuen urtea Usurbilek

ko eskubidea bermatzea; eta Frantzia betetako zigor urteak Espainian ezarritako zigorrean kontuan hartzea.

Usurbilen bezala, ordu be-

rean guztira Euskal Herri luze zabaleko 238 udalerrietan denetarik ekimenak egin ziren, Covid-19ak Bilbon egitea eragotzi zuen mobilizazio jendetsuaren ordez. Euskal gehiengo sindikal, politiko eta sozialaren babesa izan zuten deialdiok.

Azken ostirala

47 urteren ostean lehen aldiz

errepresaliatu politikorik gabe agurtu zuen urtea Usurbilek. 2021ari aldiz, testuinguru berri honetan lekuko aldaketa batekin ekingo zaio; orain arte Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deitu izan ditu hileroko azken ostiraletako mobilizazioak, aurrerantzean Sarek antolatuko ditu. Datorrena hilaren 29an izango da, 20:00etan Mikel Laboa plazan.



Bidegile ilara luze batek euskal presoek etxeratzea eskatu zuen aurreko larumbatean.

Usurbilen ere grabaturiko “Lanbroa” laburmetraia eskainiko dute igandean Sutegin

Lanbroa izeneko film laburra Usurbilgo Udalararen diru-laguntza jaso du. Igande honetan Sutegin ikus ahal izango da eta proiektzioarako nahiz ondorengo solasaldirako sarrerek doan eskuratu daitezke usurbilkultura.eus atarian. Bertan izango diren Maialen Oleaga, Paula Iglesias eta Ana Serna egileek NOAUA!ri eskaini dioten elkarrizketa duzue segidan.

NOAUA! “Lanbroa” egitasmoaren ideia nondik sortzen da?

Herrialde desberdinetan kokatuko zen film luze baten parte izango zen istorio bat bezala jaio zen. Antzinako erlojuak erreparatzen zituen auzolan talde batekin egin genuen topo gidoi bat prestatzen ari ginela eta beraien lan prozesuan murgildu ginen, oso berezia iruditu zitzaigulako bai egiten zuten lana eta baita lan taldea ere. Poliki-poliki esperimentazioari ateak ireki genizkion eta dokumental labur bat izaten amaitu du, istoria pertsonal bat ardatz duena. Lan taldeko Begok minbizia gainditu bidean bere



“Antzinako erlojuak erreparatzen zituen auzolan talde batekin egin genuen topo gidoi bat prestatzen ari ginela eta beraien lan prozesuan murgildu ginen”. Salvatore parrokiako erloju eraberritua agertzen da filmean.

“LANBROA” FILMAREN ZUZENDARIAK

“Oso eskertuta gaude Usurbilgo herrian izan dugun harrearekin”

ekarpena egiten dio erlojuen erreparazio prozesuari eta baita alderantziz ere. Esperientzia oso polita izan da, gogorra, baina transformatzen duen horrietakoa. Sentitzen genuen horri utzi diogu bere bidea egiten.

Lotura bat baino gehiago du filmak Usurbilekin. Zeintzuk?

Usurbileko antzinako erlojua da auzolan bidez erreparatu zenetako bat, elizako dorrean zegoen, bertatik jaitsi eta lanean jarri ziren herritar asko. Usurbilgo herriak kutsu berezia du, kaleak, plaza eta baita kanpandorreak berak ere eta bertan aurkitzen den organoa ikaragarria da, erabat txundituta utzi gintuen ikusi genuen lehen unetik. Grabaketa pare bat egin ditugu bertan. Erlo-

jua bertatik jaitsi zen egunean, lan handia egin zuten soka eta polea bidez erloju ikaragarri eta pisutsu hura jaisten, beraz grabatu genuen, noski. Geroago beste sekuentzia bat ere elizan bertan filmatu genuen, dokumentaleko protagonistak heriotzarekin duen harremana islatzen duen sekuentzia esperimentala. Oso berezia izan zen denontzat momentu hura eta oso eskertuta gaude Usurbilgo herrian izan dugun harrearekin.

“Tradizioa da guztia gurekin hasten dela ustearen aurkako txertoa”

NOAUA! Zaindu beharreko herri ondareari eta memoria historikoaren gaiei heltzen die zuen lanak ezta?

Errespetua eta miresmena, hori da ondarea eta memoria-rekiko duguna eta honen alde lan egiten duen jendearekiko baita ere. Eskertu beharreko lana da, auzolan bidez egindakoa, gauden lekuan gaude beste batzuk maita-

sun eta errespetu handiz egin dutenari esker, hala izaten da. Proiektu honen bueltan esaldi bat grabatuta gelditu zaigu: “Tradizioa da guztia gurekin hasten dela ustearen aurkako txertoa”. Eta horren inguruan dihardu dokumentalak baita ere, memoria, lana eta transformazioa, bizitzak badu horretaz. Gure aldetik eskertzea erlojuen erreparazio prozesuan

egon den lan taldeko partaide eta lagun bakoitzari eta dokumentaleko protagonistei, eskaini diguten guztiagatik.

Zer nolako begiradarekin ikusi behar dugu igandeko proiektioa?

Sorkuntza lan batek daukan interesgarriena, bakoitzak bere irakurketa egin ahal izatea da. Esan dezakegun bakarra da

esperimentazioari utzi dio-gula tokia, transformazioari, eraldaketari, kontrasteari eta nola ez hori guztia sentitzeari, emozioek gidatu gaituzte eta imajinatzen ez genuen tokietara iritsi gara.

Espero dugu ikusle bakoitzari zerbait transmititu ahal izatea, jarrai dezala transmisio kateak bere bidea.

“Dokumental laburra da, baina mamitsua”

NOAUA! Aurkeztuiguzue zuen ekoiztetxea, “Al Borde Films”.

Batez ere gai sozialak jorratzen dituen Bilboko ekoiztetxe independentea da. Egunerokotasunean lan talde txikiak darama aurrera proiektua, baina pertsona askok hartzen dute parte egiten ditugun egitasmo anitzetan. Dokumental honetan adibidez, pertsona askoren ekarpena eta lana izan dugu eta hala izatea gustatzen zaigu. Eragitea eta transformatzea du ekoiztetxeak abiapuntu, bestelako gaiak, bestelako erak proposatzea eta denon artean errealitate berriak eraikitzea. Proiektu anitzak ditugu, baina dokumentalak ditugu ardatz, nahiz eta fikzioarekin ere asko jolasten dugun, banatzen dituen muga hain da fina batzuetan.

Pandemia zer modutan eragiten ari da zuen jardunean?



Igandeko proiektziara Ana Serna, Maialen Oleaga eta Paula Iglesias dokumentalaren zuzendariak bertaratuko dira.

“LANBROA” FILMAREN ZUZENDARIAK

“Antzinako erlojuetara hurbildu, merezi du”

Sisteman aurretik zeuden ga-bezia eta hutsuneak agerian

utzi ditu pandemiak. Prekari-zazio egoeran erraz erortzen zen sektorea zen aurrez ere eta kolpe handia izan da. Grabaketen plangintzan zailtasun itzelak sortu ditu, azken orduko aldaketetara moldatu beharrak arazoak dakartza aurrez gauza asko prestatu eta aurreikusitako behar izaten direlako. Beti bezala,

baliabideen arabera, krisiei aurre egin ahal zaie era ezberdinetan eta guk gurean jarraituko dugu, maite dugun hori egiten, sorkuntza eta elkarlana eskutik heldu eta bidea egiten jarraitu. Kultura eta sormenari bultzada bat emango dion edonor eta edozerri atea zabalik utziz.

Zer ikusi eta ikasi ahalko da igandean Sutein?

Dokumental laburra da, baina mamitsua. Bertan egongo gara lana aurkezten Ana Serna, Maialen Oleaga eta Paula Iglesias, dokumentalaren zuzendariak. Xabier eta Bego dokumentaleko protagonistak ere bertan izango dira beraien esperientzia kontatzen. Gure aldetik, egindako lanaren inguruan hitz egin ahal izango dugu, eta batez ere barne munduetara bidaiatu eta antzinako erlojuetara hurbildu, merezi du eta.



noaua.eus goranzko joeran

Erabiltzaileen kopurua %22'84 igo da

2019	2020
37.331	45.859

Ikusitako orrialdeen kopurua %27'65 igo da

2019	2020
230.310	293.996

Bisitek gora egin dute nabarmen: %43'06

2019	2020
102.227	146.250



noaua

noaua.eus, usurbildarren zerbitzura



Herrian erosteagatik, otar ederrak etxera

Herrian erosketak egitea saritu nahi izan du bitan Hurbilago Elkartek azken asteotan; berriki, Kontzeju Zarra 13 kaleko erakusleihoko produktuen “preziyo juxtua” asmatzeko ekimenean 10 lagun saritu zituen.

Iragan astean beste bost, “Argiztatu Herria” ekimenaren bueltan. Pozik jaso zituzten Hurbilago Elkartekoen eskutik, herriko dendarien opariez hornituriko otarrak. Sariok irabazteko egin beharrekoa oso erraza zen; herrian bizitzeaz

gain, herrian bertan erostea. Zenbat eta erosketa gehiago egin herriko saltokietan, otarrok irabazteko aukera gehiago zuten noski.

Saritutakoak

Hemen dendariak bezperan

eginiko zozketan saritutako bost lagunek otarrak opariok ikusgai izan diren Kontzeju Zarra 13ko lokalean jaso dituzten unea: Paula Rubio, Ana Eizagirre, Ainhoa Arruti, Josean Rodriguez eta Marta Rizzo Montes.



Ezkerretara, Hurbilago elkarteko hainbat kide. Gainontzeko irudietan, zozketaren antolatzaileak eta irabazleak: Paula Rubio, Ana Eizagirre, Ainhoa Arruti, Josean Rodriguez eta Marta Rizzo Montes.



**Errausketaren Aurkako
Mugimendua, Usurbil**

Erregaia eramanez nekez lortuko da erraustegia gelditzea

Erraustegia Erabakia plataformak 2016an Usurbilen antolatutako galdeketa, partaideon %98ak ezetz esan genion erraustegiari. Orduan, hauxe udal gobernuak adierazitako konpromisoa: “Usurbilgo Udalak jaso du herriaren hitza. Eta, herri borondatearen ordezkari gisa, erraustegiaren mamua haizatzen dutenen aurrean, herriaren hitza errespetatzen eta errespetaztzen saiatuko gara. Hala egitea dagokigu, sinesenez eta koherentziaz. Eta hala egingo dugu”.

Baina, inori ezer galdetu gabe, herria informatu gabe, isilka, ezkutuan, erraustegira errefusa eramaten hasi da. Hobeto esanda, badarama ia urte bat horretan. Gertatzen ari denaren berri, arduradun publiko guztiek eman behar dute. Ez dakigu zer kalifikazio jarri jokabide honi. Sinadurak biltzen aritu garen egun horietan, Usurbilgo udala erraustegira hondakinak eramaten ari zela usurbildarrei esaten genienean, “aho bete hortz” gelditzen ziren herritar asko. “Etzaidazu esan”, “ez da egia izango” eta halakoak adierazi dizkigute.

Gure hondakin errefusa erraustegiko labeetara ez eramateko eskatzen diogu sinatzaileok Usurbilgo udalari.



“Gure hondakin errefusa erraustegiko labeetara ez eramateko eskatzen diogu sinatzaileok Usurbilgo udalari”.

ERRAUSKETAREN AURKAKO MUGIMENDUA

**“Dagoeneko eskari
hauek babesten dituzten
herritarren sinadurak
Usurbilgo udalaren esku
jarri ditugu, eta orain,
erantzunaren zain
gelditzen gara”**

Hain zuzen, Usurbilgo udalak 2017ko udal plenoan onartu zuen “Usurbilgo hondakin prebentzio eta kudeaketa programan” jasota dagoen “0 hondakin desmaterializatu edo erraustu” konpromisoa betetzeko eskaria egiten diogu. Gardentasunaren izenean politika horizontalen aldeko mezuak saltzen zaizkigun garaiotan, justu horren kontrako norabidean doan erabakia hartu du udalak.

Erraustegiaren aurka egote hutsak ez gaitu erraustegia gelditzera eramango. Are gutxiago erraustegira hondakinak erretzera eramaten badiugu. Gaikako bilketan lortzen duen mailak erreferente egiten du herri hau, baina horrek ez du zuzitzen erraustegira erregaia eramateko kontraesana. Errealitate berriak sortzeko alternatibak praktikan jarri behar izaten dira. Ez da biderik errazena, noski, baina horrela jokatu genuelako daukagu gaikako bilketan bikaintasuna lortzen duen Atez Ateko bilketa. Herriari azaldu, adostu, ekin eta egin genuelako da errealtate Atez Ateko gaikako bilketa Usurbilen. Zergatik ez da bide berdina egiten sortzen dugun hondakin errefusaren tratamendurako alternatiba bat adostu eta abian jartzeko?

2018ko maiatzean, honda-

kinen kudeaketarako HOBEBEkin pritzipioen dekalogo onartu zuen Usurbilgo udal plenoak. Horietako batek honela dio: “Herritar ahalduntzeak eskatzen du, batetik, prozesu osoaren parte aktibo izateko aukera ematea, bigarrenik, hondakin horiekin hasieratik bukaerara zer egiten den garbi azaltzea, eta, hirugarrenik, erabakietan parte hartzeko aukera ematea”. Ikusten denez, pritzipio honetaz ere ahaztu da Usurbilgo udal gobernuak, erraustegira hondakin errefusa erretzera eramateko erabakian ez baitu herritarren parte hartzeko aukerarik eman.

Azken lau hilabeteotan kalean sinadurak biltzen aritu gara, udalari bi eskari zehatz egiteko:

- 1.- EZ ERAMAN nire errefusa hondakinak Zubietako erraustegiko labeetan erretzera.
- 2.- Zaborren tasa bidez nik udalari ordaindutako dirua, EZ ERABILI erraustegia finantzatzeko.

Dagoeneko eskari hauek babesten dituzten herritarren sinadurak Usurbilgo udalaren esku jarri ditugu, eta orain, erantzunaren zain gelditzen gara.

**Errausketaren Aurkako
Mugimendua, Usurbilgo
Taldea.**

Pelaioeneako hurrengo saioak

Kalezarreko Pelaioenea erakina Emakumeen Etxea eta auzotarren bilgune izango da etorkizun hurbilean. Erabilera zehazteko xedez, udalak partehartze prozesu bat abiarazi zuen iaz. Datozen

asteetan emango zaio jarraipena.

Urtarrilaren 28an osteguna

■ Emakumeen 4. gogoeta gunea, arratsaldeko 18:00etan Artzabalen.

■ Gaiak: espazioaren antolaketarako proposamena eta Pelaioenearen kudeaketa eredu eta funtzionamendua.

Otsailaren 4an osteguna

■ Kalezartarren 3. go-

goeta gunea, arratsaldeko 18:00etan Haurreskolan.

■ Gaiak: espazioaren antolaketarako proposamena eta Pelaioenearen kudeaketa eredu eta funtzionamendua.

“Irauli” sortu dute, Buruntzaldeko langile prekarioen sarea

Buruntzaldeko udalerrietako herritar anitzek osatu eta “handitzen joateko helburuz” Irauli sortu dute eskualdean, langile prekarioen sarea. “Testuinguru horren aurrean, antolatze eta gehiengo osatzen dugun langilegoaren mesedetan kokatuko den sistema baten aldeko borrokari ekiteko beharra ikusi dugu. Horretara dator Irauli; langileon problematikei aurre egiteko borrokei ekitera, formakuntza eta kontzientziazioan sakontzera, langileon antolaketa indartzera, eta zapaltzen gaituen sistemari aurre egiteko mekanismoak sortzera”.

Jardunaren bi ardatz nagusiak izango direnak aurreratu dituzte. Batetik kontzientziazioa eta formakuntza sustatu nahi dute, “prekarietate egoera bati aurre egin ahal izateko lehen urratsa, prekarietate egoera bera identifikatzen jakitea baita”. Eta bigarrenik, prekarietateari aurre egiteko “erantzun edo salaketa dinamika” iragarri dituzte, “problematika konkretuen aurrean erantzun kolektiboak, non lan-



Ehunaka langileren egoera gaiztotu da pandemiaren ondorioz.

IRAULI

“Sistema kapitalistaren gabeziak aspaldidanik ezagunak badira ere, Covid-19ak era gordinenean azaleratu ditu, klaseen arteko talka eta langileon zaurgarritasuna areagotuz”

gile orok aukera izango duen jasaten dituen zapalkuntzen aurrean Irauliren sareaz baliatzeke”.

Aspalditik landutako ideia

Egitasmoa orain aurkeztu bada ere, hilabeteetako lanketaren

ostean dator. “Gaur argia ikusten duen proiektu bat bada ere, aspaldidanik lantzen gabiltzan ideia da Irauli. Hilabeteetan zehar gure eskualdearen errealitatea aztertzeari eta bertako langileok pairatzen ditugun prekarietate egoera ohikoenak identifikatzeari ekin genion. Horixe izan zen Buruntzaldeako gazte prekarioen sarea sortzeko ideien jatorria”.

“Egoera krudelagoa da orain”

Lehendik ere egoera gordina bazen, krudelagoa bilakatu dela diote pandemiarekin; “Sistema kapitalistaren gabeziak eta hutsuneak aspaldidanik ezagunak badira ere, Covid-19ak

era gordinenean azaleratu ditu horiek, klaseen arteko talka eta langileon zaurgarritasuna areagotuz”. Hain zuzen “kapitalismoak sortutako krisien aitzakipean”, etengabeko prekarizazioa kondenatu dute langileria hamarkada hauetan sare honek salatzen duenez, “gure eskubideen urraketan eta betiko eliteen mesedetan oinarritutako erabaki ekonomiko eta sozialak jasaten gabiltza etengabe”. Baita gaur egun ere; “Krisi berriari, konponbide zaharrak eman nahian dabil kapitala; langilegoaren bizkar utzi nahi dute berriro ere krisiaren pisua, elite ekonomiko eta politikoen interesak eta irabaziak bermatzen diren bitartean. Krisi hau, aurrekoen antzera, langileok ordain dezagun nahi dute”.

Berri gehiago, sare sozialetan

Sare honekin bat egiteko deia egin dute. “Prekarietatera kondenatzen gaituen sistema iraultzeko, batu borrokara!”. Sare sozial hauetan jaso ahalko duzue informazio gehiago:

■ [instagram.com/irauli_sarea](https://www.instagram.com/irauli_sarea)

■ twitter.com/irauli_sarea

■ [facebook.com/irauli.sarea](https://www.facebook.com/irauli.sarea)

Elurra Andatzan

0-200 metro artean egin zezakeela eta egitekotan gutxi zurituko zuela iragarri bazuten ere, elur maluta batzuk baino ez zizkigun ekarri iragan larunbat arratsaldean, Iberiar Penintsulako zonalde batzuetan hamarkada luzetako elurte handiena eragin duen “Filomena” izeneko denboraleak.

Elurrik ez baina urte garai

honi dagokion hotz handia izan dugu egunotan, goiz bat baino gehiagotan teilatu, belardi eta zelaiak zurituta esnatu zaizkigu. Giro hotz honek ere errazago eutsi dio urte hasieran Andatza gainean botatako elurrari. Urtarrilaren 4an Juanjo Estevez herritarrek ateratu zuen argazkia duzue ondoko. Gaioldean bai, elurra gogotik egin zuen.



Urtarrilaren 4an Juanjo Estevezek ateratako argazkia duzue ondoko.

Urte berrirako ikastaroak

Hainbat formazio saio berri iragarri dira urteko lehen hilabeteetarako.

Langile nahiz langabetuentzat

% 100ean Lanbidek diruz lagundutako langile nahiz langabetuei zuzenduriko 2021. urteko lehen ikastaroak iragarri berri ditu Lanbide Eskolak; fabrikazio mekanikoa, administrazioa eta kudeaketa, elektrizitatea, instalakuntza eta mantenimendua, energia eta ura, ostalaritza, formazio osagarria... Denetarikoa saioak.

■ Izen ematea eta informazio gehiago bideotatik: lhusrbil.eus
943 36 46 00
667 415 810 (Whatsappa)
ursos@lhusrbil.eus

Osasun eta emozioen zaintza

Emakumeei zuzenduriko ahal-duntze ikastaro berria antolatu du Usurbilgo Udalaren Parekidetasun Sailak; “estado de salud y cuidado emocional” izenekoa Pepa Bojo Ballester psikologo eta psikoterapeutarekin, urtarilaren 21etik martxoaren 25era. Saioak ostegun arratsaldeetan izango dira, 17:00-19:00 artean Potxoenean. Ikastaroaren helburua, “emakumeok gune bat sor-



Ikastaro berriak jarriko ditu martxan AEK-k hainbat euskaltegitan.

ETUMETA AEK EUSKALTEGIA

“Bigarren matrikulazio aldia iragarri du AEK-k, urte berriarekin batera euskara ikasi edo maila hobetu nahi dutenentzat”

tzea da, bereziki bizitzan ari garen bizipenak eta egoerak partekatzeko”. Parte hartzaile kopuru mugatuarentzako lekua egongo da.

■ Izena aurrez eman beharko da, doan, bideotatik: 943 377 110
parekidetasuna1@usurbil.eus

Hizkuntza eskubideen ahalduntzerako saioa

Hizkuntza Eskubideen Beha-

tokiak eta Usurbilgo Udalak berriki sinaturiko lankidetzak hitzarmenaren testuinguruan, herritarrek dagozkien hizkuntza-eskubideen arloan ahal-duntzeko prestakuntza saioa deitu du Udalak otsailaren 3an 18:00etan Sutein.

■ Behatokiak bideratuko duen hitzordurako izena doan eman daiteke jada usurbilkultura.eus atarian.

KzGunea

Astelehenetik ostiralera zabalik da KzGunea hilabete honetan, 9:00-13:00 artean. Gogoan izan, bertara joan aurretik hitzordua eskatu beharra dagoela. Datozen ikastaroen artean, honako hau iragarri dute: Urtarrilak 28-29, 9:00-11:00 “WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure Smartphonean”.

Ikastaro gehiago ere eskaintzen ditu KzGuneak, tartean online bidezko bat baino gehiago.

■ Informazio gehiagorako: Kale Nagusia, 37
943 023 684
tutor.usurbil@kzgunea.net
kzgunea.eus

AEK

Bigarren matrikula-aldia iragarri du AEK-k, “betiere unean uneko osasun-neurrietara egokituta eta prebentzio-neurriak oro hartuta”, urte berriarekin batera euskara ikasi edo maila hobetu nahi dutenentzat. Ikastaro berriak jarriko dituzte martxan hainbat euskaltegitan edota urrian martxan jarri zirenetan lekua bada (bai aurrez aurrekoetan zein autoikaskuntzan) ere matrikulatzeko aukera izango da. Gogoan izan, Usurbilen gainera, 2020an 10 urte bete zituen Mintzalagun egitasmoak ere martxan segitzen duela eta bidelari nahiz bidelagun gisa parte hartzeko aukera dagoela.

■ Informazio gehiagorako: Nagusia, 43
607 609 379
usurbil@ae.k.eus
ae.k.eus
muntteri.blogspot.com.es

Urte hasiera, ziurgabetasunez betea

Inoiz baino aurreikuspen gutxiago egin daitezkeen urte berria estreinatu dugu, inoiz baino ziurgabeagoa, baita herrian errotoak dauden ospakizunei dagokienean ere. Usurbilgo herri bizitzan seinalatuak dauden hitzorduekin zer gertatuko den ezin jakin aurretik.

Momentuz, hasi berri dugun urtarilari dagokionean,

erregeen kabalgata ospatu zen, harrera jendetsurik eta geldialdirik gabe. Gainerakoan, aurreko urteetan oso hilabete lasaia izan da honako hau.

BTT proba, bertan behera

Urtarrileko egun seinalatu bakarrenetarikoa “Irisasi BTT Hotzak Akabatzen” proba izan ohi da. Iaz parte hartze marka hautsi ostean, aurtengo edizioa bertan behera geratu da.



“Irisasi BTT Hotzak Akabatzen” proba bertan behera geratu da.

“Geuretik Sortuak” artistentzako beka deialdia luzatu du Udalbiltzak

Otsailaren 5era arteko epea izango dute herriko zinemagile, antzerki konpainia eta idazleek proposamenak aurkezteko. Euskal artisten sormena eta euskal herrietako historia eta idiosinkrasia uztartzea du helburu proiektuak, euskarazko artea sortu eta hedatu dadin.

Udalbiltza Partzuergoak egindako deialdia da Geuretik Sortuak, euskarazko kultur sorkuntza sustatzeko proiektua: literatura, antzerkia eta zinema lanak sortzeko bekak banatuko dituzte, hain justu.

Oinarriak, Udalbiltzaren web orrialdean

Udalbiltzako kide diren 22-25 herriko parte hartuko dute proiektuan (tartean, Usurbil-ek), eta beste hainbeste proposamen hautatuko dituzte guztien artean, bakoitzak berea ez den herrian egonaldia egin



Udalbiltzak abenduan eman zuen kanpainaren berri. Lanak aurkezteko epeak zabalik jarraitzen du.

UDALBILTZA

Ekimen honen bitartez literatura, antzerkia eta zinema lanak sortzeko bekak banatuko dituzte

dezan. Parte hartu duten herri guztiak saretuko dituen aurkezpen zirkuitu bat osatuko dute sortutako lanekin. Sor-

men beka deialdiaren oinarriak udalbiltza.eus web orrialdean kontsulta daitezke. Tokian tokiko istorio batean oinarritutako kontakizun artelanak sortuko dituzte artistek, beti ere, euskaraz. Horretarako, kulturegileek hiru asteko egonaldiak egingo dituzte esleitutako herrietan, herriko istorioak eta pertsonak ezagutu eta proiektua landu ahal izateko.

Egonaldian sortutako gas-

tuak; dietak, ostatua, garraioa eta otorduak ere ordainduko zaizkie, bekaren kopuruaz gain. Diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira, eskabideak alderatuz haien arteko hurrenkera bat ezartzeko. Aurkeztutako proposamenek guztien 50 puntu lortu behar dituzte beka eskuratu ahal izateko.

Arte diziplina bakoitzeko, lanak amaitzeko epe bat ezarri dute: eleberririk motza edo ipuina 2021eko irailaren 17a, antzezlanak 2022ko urtarilaren 28a eta film laburra (postprodukzioa barne) 2021eko azaroaren 26a.

Parte-hartzaileek eskabideak aurkezteko bi bide izango dituzte. Batetik, Udalbiltzaren erregistroan, Oiartzungo Udalean dago erregistroa, Doneztebe Plazako 1 zenbakian; eta, bestetik, posta elektronikoz, udalbiltza@udalbiltza.eus helbidera idatzita.

Erreferendumaren alde sinatzeko deia egin du Gure Eskuk

Erreferendumaren aldeko sinadura bilketa masiboa abian du iaiztik Gure Eskuk. “Herri-tarron garaia da. Indarrak batu eta aurrera egitekoa. Gure bizitzetan eta komunitatean eragiten duten auziei buruz erabakitze eskubide osoa dugu, eta horretarako, erreferendum bidez erabakitzea posible egingo dugu. Bidea hasia dugu eta hamaika gara bertan bat egiten ari garenak”, dio Gure Eskuren manifestuak.

Hamaikagara.eus atarian klikatuta eman dezakezue

atxikimendua. “Erreferendum bidez erabakitzearen aldeko atxikimendu eta konpromiso pilaketa masiboa da ‘Hamaika Gara’ egitasmoa”. Horretarako zabaldu du Gure Eskuk hamaikagara.eus ataria. Bertan aurkituko dituzue kanpainaren xehetasunak eta sinatu beharreko manifestua.

Kanpaina honetan parte hartzeko deia egin du Usurbilgo Gure Eskuk, etxetik etxera banatu duen eskuorrian. Bertan gainera, 2013. urtean sortu zenez geroztik erabakitzeko es-



Sinadurak hamaikagara.eus atarian batzen ari dira.

kubidearen alde jorratu duen bidea gogorarazi digute; giza kateak, mosaiko erraldoiak... Erabakitzeko eskubidea ehuntzen joan den 8 urteko ibilbide emankorra.

Gure Eskuren Tripontziaren zozketa

52.000 euro banatuko dituen Gure Eskuren ekimeneko txartelak erosiak dituzuenok adi; urtarilaren 18an egingo dute zozketa. Txartela eskuratu ez baduzue, tripontzia.eus atarian duzue erosteko aukera. Zozketatik jasotako laguntzaren zati bat euskal kulturegintza babesteko eta sustatzeko proiektu batera bideratuko du Gure Eskuk. Eta txartelak erostearen truke, komiki digitala jasoteko kodea eskura dezake.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Kontratu finkoa daukat eta Usurbilen edo Lasarten kontratuarekin eta erroldarekin alokairuan etxe bat edo logela bat hartuko nuke. 675886442 (Fernando).

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

rra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

Nissan Note 1600 gasolina kotea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo interna moduan. 603315126.

Emakume bat eskaintzen da umeak, adineko pertsonak eta etxeko lanak egiteko. Informee-kin 658706345 / 602568090.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da

euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburueterako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

24 urteko neska gaztea. Arratsaldez umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest

dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo heldue- na. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Intersatuak deitu: 631 489 128.

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizona eskaintzen da. Lanaldi osoz orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelese ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuan haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperien-

tzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest. 664192760 / 722483994.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

BESTELAKOAK

Perikito bat galdu da Punta-pax inguruan. Urdina, bularraldean lumak galduta ditu. Topatu baduzu, deitu hona: 675007048.

Mendiko bizikleta bat salgai 450 euro, negoziagarriak. 646715903 (Maider)

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbategi: 9:00-13:00.

**Zorionak Ibai!**

Joan den igandean egin dituzu 8 urte. Muxu potolo bat familia guztiaren partetik.

Goardiako farmaziak

Osteguna 14 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 15 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 16 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 17 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 18 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 19 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 20 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 21 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 22 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 24 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

URRUTIA-MARTIN-HERNANI

Etxeberri auzoa, 1. Florida

943 55 77 38

Agenda

urtarrila

15 ostirala

■ Joxan Artzeren liburuen erakusketa Sute-giko erakusketa aretoan.

16 larunbata

■ Joxan Artzeren liburuen erakusketa Sute-giko erakusketa aretoan.

17 igandea

■ Joxan Artzeren liburuen erakusketa Sute-giko erakusketa aretoan.

■ Lanbroa film laburra 18:00etan Sutegin. Sarrera doan, baina aldez aurretik eskuratu behar da usurbilkultura.eus web orrialdean.

Ahalduntze ikastaro berri bat eskainiko du Pepa Bojok

Usurbilgo Parekidetasun Sailak “Estado de salud y cuidado emocional” izeneko ikastaroa antolatzen du. Pepa Bojo Ballester psikologo eta psikoterapeutak eskainiko du urtarrilaren 21etik martxoaren 25era, eta emakumeei zuzendua dago.

Ostegunez izango dira saioak, 17:00-19:00 artean, Potxoenean. Helburua, “emakumeok gune bat sortzea da, bereziki bizitzen ari garen bizipenak eta egoerak partekatzeko”.

Izen-ematea

■ Aurrez eman beharko da izena (doan



Saioak ostegunez egingo dira Potxoenean, 17:00etatik 19:00ak arte.

da ikastaroa): 943 377 110.
parekidetasuna1@usurbil.eus

■ Parte hartzaile kopuru mugatuaren-tzako lekua egongo da.

Joxan Artze omentzen ari dira Sutegin

Hiru urte Joxan Artze zendu zenetik, bere oroimenak bizi asko dirau. Iaz beza-la, urtarrilaren 7tik 15era berari idazteko liburua herritarren eskura jarriko dute Sutegi udal liburutegian. “Joxan gogoan, bihotzetik ateratzen zaigun hori idatzi ahal izango dugu bertan”. Horrekin batera, liburutegiak Artzeren liburuak ikusgai jarriko ditu urtarrilaren 7tik 17ra kultur-etxeko aretoan.

Hizkuntza eskubideen ahalduntzerako saioa

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak eta Usurbilgo Udalak berriki sinaturiko lan-kidetza hitzarmenaren testuinguruan, herritarrak dagozkien hizkuntza-eskubideen arloan ahalduntzeko prestakuntza saioa deitu du Usurbilgo Udalak otsailaren 3an 18:00etan Sutegin. Behatokiak bideratuko duen hitzordurako izena doan eman daiteke jada usurbilkultura.eus atarian.

Datozenak



KzGuneko ikastaroak

Whatsapp, bat-bateko mezularitza zure Smartphonean.

- Urtarrilak 28 eta 29.
- Ordutegia: 9:00-11:00.
- Euskaraz.

Smartphoneak eta tabletak.

Zure Android gailua erabiltzen ikasi.

- 14 orduko ikastaroa.
- Urtarrilak 19/Urtarrilak 27.
- Ordutegia: 9:00-11:00.
- Euskaraz.

Wordpress. Zure webgunea sortu.

- 20 orduko ikastaroa.
- Urtarrilak 18 /Otsailak 03.
- Gaztelaniaz.

Marka pertsonala eta LinkedIn.

- 20 orduko ikastaroa.
- Urtarrilak 18 /Otsailak 03.
- Euskaraz.

Informazio gehiago Usurbilgo KzGunean edota bertara telefonoz deituta, 943 02 36 84.



AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



• 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

• Jantoki zerbitzua, bertako ostatuan sukaldatua.

• Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

• Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

• Eskola orduraz kanpoko kirola.

• Goizeko gela (8:00-9:30)

Izena emateko epea: urtarrilaren 18tik 29ra

9:30etik-16:30tara



Usurbilgo Udala

baikara 
Gipuzkoako LGEn federazioa

**AGINAGA
HERRI ESKOLA
Usurbil**

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044

Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- **Hezkuntza Integrala:** Konpetentzietan Oinarritutako Hezkuntza.
- **Hezkuntza eredu propioa:** Konfiantzaren Pedagogia egitasmoa garatzen dugu.
- **Ikastola Berritzailea:** eraldaketa didaktiko, metodologiko, eta teknologiko etengabea sustatzen dugu.
- **Ikastola Euskalduna:** euskaraz irakatsiz eta ikasiz, euskaraz biziz, euskaldun konprometituak hezten dihardugu.
- **Irakaskuntza Eleanitza:** ingelesa 4 urtetik aurrera eta frantsesa, hautazko gaia, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- **Herritarra:** Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildutako ikastola.
- **Ikastola Inklusiboa:** guztion ikastola bultzatzen dugu, aniztasuna, garapen-erritmo eta behar espezifikoak aintzat hartuz.
- **KiVa ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017tik aurrera beste 56 ikastolekin batera.
- **Autobusa** auzo eta herrietara: Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Lasarte.
- **Jangela:** bertan sukaldatutako herriko produktuak.
- **Zaintza zerbitzua:** 08:00etatik 09:00etara eta iraila eta ekainean 14:30 16:30era.
- **ZIRIMARA aisialdi Proiektua eta eskolaz kanpoko jarduerak:** kirolak, dantza, xake eta antzerkia.
- **Beka sistema propioa:** kuoten %100 bonifikatua.

53 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Urtarrilaren 18tik 29ra (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6
LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12
DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.eus